

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea Asparreneko eguneko arretarako landa zentroaren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzari

2025eko otsailaren 17an ALHAOn (19. zk.) iragarkia argitaratu zenez geroztik, jendaurrean egon zen bitartean, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onetsi da Asparrenean eguneko arretarako landa zentroaren prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala. Hona hemen hura hitzez hitz:

#### I. eranskina

##### Prezio publikoaren zenbatekoa

1. tarifa. Eguneko arretarako landa zentroak	
1.1. tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua	130,18 euro hileko
Zerbitzu osagarriak:	
1.2.1. tarifa: otordu zerbitzua lanegunetan	88,72 euro hileko
1.2.2. tarifa. Otordu zerbitzua asteburu eta jaiegunetan	7,00 euro otorduko
1.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua	8,20 euro garbiketako
1.4. tarifa. Bainu geriatrikoa emateko zerbitzua	5,09 euro bainu bakoitzeko
1.5. tarifa. Atsedeen zerbitzua	26,48 euro eguneko

1.1. eta 1.2.1. tarifak aplikagarri dituzten zerbitzuak egunero erabiltzen ez badira, prezio publikoa erabileraren arabera izango da.

1.2.2 tarifa hileroko ordainduko da, eta ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, zerbitzuaren kostua hilabete bakoitzeko larunbat, igande eta jaiegun guztiei aplikatuko zaie, erabiltzailea zenbat egunetan joaten den kontuan hartu gabe, eta ezin izango da murrizketarik aplikatu ez joateagatik, justifikatutako arrazoiengatik ez bada.

Ordenantza honen behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko dute interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2025eko apirilaren 1a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ